

“KONTUEN AUDITORIA” IKASTAROAREN IRAKASKUNTZA GIDA

AURKEZPENA

Ikas material honen helburu nagusia Kontuen Auditoria zer den eta nola burutzen den argitzea da. Kontuen Auditoria lan merkatuan irteera profesionala duen jarduera da. Izan ere, araututako jarduera da eta kontabilitate agirien kanpo egiaztapen independentean datza.

Ikas material honetan Kontuen auditoriaren oinarriak eta nazioarteko arauak azalduko dira. Ikuskaritza lanaren prozesu osoan zehar bete behar dira arau teknikoak, alegia plangintza, exekuzioa eta auditoria-txostena prestatzerakoan.

Enpresen Urteko Kontuen egiaztapena burutzeko jarraitu beharreko urratsak zehaztuko dira, esaterako arloaren definizioa, auditoria helburuak, barne kontrol sistemaren azterketa eta ebaluazioa, prozedurak eta probak. Azkenik, txostena igortzeko nabaritasunen analisia eta iritzia nola eman behar den landuko da. Ezagutza teorikoa kasu praktikoekin osatuko da.

Beraz, ikastaroa gai hauei buruz interesa duen edonori zuzendua dago. Interes berezia izan dezakete Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako ikasketak egiten dituzten pertsonak. Lanbide-jarduera izanik aukera dute kontuen auditore izateko, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak (ICACek)- Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioari atxikitako erakunde autonomoak- baimenduz gero. Horretarako, besteak beste, titulazio ofizial bat eta Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialaren sarbide proba gainditu behar da.

Esan behar da, ikastaroa burutzeko kontabilitatearen oinarriak izatea beharrezkoa dela, lanbide heziketa edo unibertsitateko lehen mailatan ikusitakoa. Aurrebaldintza honekin ikasmateriala errez jarraitu daiteke.

LORPENAK: ZERTAN LAGUN ZAITZAKE IKASTARO HONEK?

Behin ikastaroa eginda, gai izango zara, adibidez, enpresek argitaratzen dituzten kontuen auditoria-txostenak ulertzeko.

Eta, era xumean bada ere, enpresako arlo desberdinen egiaztapena egiteko erabiltzen diren auditoria probak ezagutuko dituzu, baita proben bidez lortutako nabaritasunek urteko kontuetan duten eragina auditoria-txostenean nola islatzen den jakingo duzu.

Izan ere, edozein lanbide burutzeko ezagutza teorikoak, abilezia praktikoak eta baloreak behar dira. Horregatik, irakasgaia bost atal nagusitan banatu da:

- Lehenengo atalean auditoriaren oinarriak garatuko dira, alde batetik Kontuen auditoriaren definizioa eta helburuak adieraziz eta, bestetik auditoria lanak betetzen duen gizarte funtzioa. Kontuen auditoria lege bidez arautua dagoen jarduera da.
- Bigarren atalean Espainian indarrean dauden Nazioarteko Ikuskaritzako Arauak jorratuko dira, eta ardura berezia eskainiko zaio auditorearen etika eta independentziari.
- Hirugarren atalean Kontuen auditoria prozesua eta metodologia adieraziko da. Aplikazio praktikoak burutzeko ezinbesteko atala da.
- Laugarren atalean auditoriaren lan arloak aztertuko dira. Aplikazio atala da eta ariketa bildumarekin osatu behar da. Oro har, enpresaren jardueran bereizi daitezkeen bi ziklo aipatuko dira: Salerosketa zikloa (epe laburra) eta Inbertsio-finantzaketa zikloa (epe luzea).
- Bosgarren atalean Urteko Kontuen Auditoria-txostena landuko da.

IRAKASGAIARI DAGOZKION GAITASUNAK

1. Kontuen auditoriaren oinarriak ezagutu eta ulertu, enpresek prestatzen dituzten agiri ekonomiko-finantzarioen fidagarritasuna aztertu eta iritzia emateko.
2. Auditorearen lan paperak prestatzeko gai izan, dagokion metodologia, arau tekniko eta tresnen erabilera menperatuz.
3. Kontuen auditoria-txostenaren edukia prestatu eta interpretatu.
4. Kontuen auditoreen balore etikoen garrantziaz hausnarketa egin.

Testuingurua, gaitasun orotarako, Urteko Kontuen egiaztapena burutu eta, kasuan kasurako, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialaren sarbide proba prestatzea izan daiteke.

IRAKASKUNTZA EMAITZAK (IE)

- IE1. Kontuen auditoriaren oinarriak ezagutu eta ulertu, nazioarteko arau teknikoak landuz eta auditoria prozesuan kokatuz.
- IE2. Arlo jakin batean kontuen auditoria lana planifikatu (auditoria probak proposatu) eta exekutatu (landa praktika), dagokion metodologia, arau tekniko eta tresnak aplikatuz.
- IE3. Nabaritasunak balioztatu eta Auditoria-txostenean iritzia eman.
- IE4. Kontuen auditoreen balore etikoen garrantziaz hausnarketa egin.

GAI ZERRENDA

1. GAIA: AUDITORIAREN OINARRIAK: DEFINIZIOA ETA HELBURUAK
 - 1.1 Kontuen auditoriaren definizioa
 - 1.2 Kontuen auditoriaren helburuak eta gizarte funtzioa
2. GAIA: IKUSKARITZAKO ARAU TEKNIKOAK
 - 2.1 Nazioarteko Ikuskaritzako Arauak
 - 2.2 Auditoriaren giltzarria: independentzia
3. GAIA: AUDITORIA PROZESUA
 - 3.1 Auditoria prozesua
 - 3.2 Plangintza eta gainbegiratzea
 - 3.3 Barne kontrol sistemaren azterketa eta komunikazioa
 - 3.4 Exekuzioa. Nabaritasuna lortzeko probak eta metodoak
 - 3.5 Eranskinak
4. GAIA: AUDITORETZAREN LAN ARLOAK
 - 4.1. Salerosketa zikloa (epe laburra)
 - 4.2. Inbertsio-finantzaketa zikloa (epe luzea)
5. GAIA: URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTENA
 - 5.1 Auditoria-txostena prestatzeko prozesua
 - 5.2 Auditoria-txostenen elementuak
 - 5.3 Auditoria-txostenen ereduak

METODOLOGIA

OCW ikastaroa era ireki eta doakoan autoikaskuntza eta kontsultarako helburua lortzeko asmoz argitaratutako unibertsitate ikas materiala da. Hori dela eta, materialak arretaz irakurri eta eskatzen diren ariketa eta zereginak egitea aholkatzen da. Ebazpenak eskura izango dituzu emaitzak txekatu ahal izateko. Gainera, ezagutzak autoebaluatzeko galdetegia izango duzu, test motatako galderekin eta gaika antolatuta.

IE	Ikas modalitatea eta berari atxikitako zereginak:
1	Materiala landu, arlo garrantzitsuenak azpimarratu, nazioarteko ikuskaritzako arauak irakurri
1	Autoebaluazio galdetegia
2	Praktika: ariketak ebatzi eredu jarraituz; excel orria erabili ahal dela
3	Auditoria-txostenen eredu aztertu, txostenak bilatu, interpretatu
4	Auditoreen independentziari buruz hausnarketarako irakurgai

ZEREGINEN KRONOGRAMA

Edukia	Ordu kopurua
Hasierako eta amaierako autoebaluazioa Zer uste duzu egiten duela auditore batek. Zer-nork-nola-zertarako erantzun.	2 ordu
1. Gaia: Kontuen auditoriaren oinarriak: definizioa eta helburua Zeregina: Espainiako auditoria jardueraren egoera komentatu	5 ordu
2. Gaia: Ikuskaritzako arau teknikoak Zeregina: NIA-ES bilaketak ICAC-en Web orrian; irakurketa	5 ordu
3. Gaia: Auditoria prozesua eta metodologia Aurretiazko jarduerak; Plangintza: plan globala eta egitaraua; Lanaren exekuzioa; Txostenaren igorpena	10 ordu
4. Gaia: Auditoretzaren lan arloak Zeregina: ariketak	20 ordu
5. Gaia: Urteko Kontuen Auditoria-txostena Zeregina: auditoria-txostena prestatu	8 ordu

10 aste behar dira 5 ordu astean eginez gero.

MATERIAL OSAGARRIAK

Ekonomistentzako Profil Profesionalen Gida

<https://www.ekonomistak.eus/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=54708ad1-017d-4a49-bd09-b326b95910e0&Idioma=es-ES>

Ikasgaiarekin zerikusia duten blog-ak

<https://manuelrejon.com/> El blog de Manuel Rejón

<https://blog.gesia.es/author/david/> Blog Gesia – David Uyarra

<http://gregorio-labatut.blogspot.com/> Blog sobre Economía de empresa: Contabilidad, Auditoría, fiscalidad, finanzas y valoración de la empresa y Prevención del Blanqueo de Capitales de Gregorio Labatut

Ikasgaiarekin zerikusia duten aldizkariak

Técnica Contable y Financiera <https://www.wolterskluwer.es/productos/periodicos-y-revistas/tecnica-contable-y-financiera.html>

Web-gune interesgarriak

- www.cnmv.es Web Comisión Nacional del Mercado de Valores
- www.europa.eu Web Unión Europea
- www.icac.gob.es/eu Web Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas
- www.icjce.es Web Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España
- www.rea.es Web Registro de Economistas Auditores
- www.ifac.org Web International Federation of Accountants